

FUNTSEZKO JARDUERAK

Badakigu, sortzaile digital hauek eta jokalarik profesionalak beraien lanean laguntza handiak jasotzen dituztela marka ezberdinetatik, gure enpresak pertsona hauen eta marken arteko zubia izango da. Horrez gain, edozein proiektu aurrera eramaten eta laguntza legala eta administratiboa eskeinitzeko dizkiegu. Gure enpresaren helburua sortzaile digital hauek eta jokalarik profesionalak beraien lanean bakarrik jardutea da bestelako arazoak gure arduraren utziz.



Gure enpresaren zerbitzu hauek banaka aztertuko ditugu:

1. Marka eta sortzaile digitalaren arteko negoziazioa

Sortzaile digitalen diru-iturri nagusietako bat marka ezberdinekin egiten dituzten kolaborazioak dira. Sortzaileak marka horren produktu edo zerbitzu bat iragartzen du diru kopuru baten truke. Gure enpresak sortzaileari kolaborazio ezberdinak aurkitu eta ondoren negoziazioaz arduratuko da.

2. Laguntza administratibo eta legala.

Sortzaile digital hauek eduki ditzazketen arazo ezberdinak konpontzen lan egingo dugu. Lan egiten duten plataforma ezberdinetan (Twitch, Youtube...) sor daitezken arazoei konponbidea emango diegu eta horrez gain, edozein proiektu aurrera ateratzeko laguntza emango diegu.

3. Jokalarik profesionalen manager lana

Jokalarik profesionalen ordezkari izateko zerbitzua ere eskainiko diegu, hau da, futbol jokalarik profesionalen ordezkariak egiten duten bezala. Esports talde ezberdinkin negoziatu eta akordio ezberdinak lotzen lan egingo dugu. Joku elektronikoen munduan jokalarik profesionalen salerosketak oso ohikoak dira, horrenbestez, ordezkariak lana guztiz beharrekoa da. Adibidez, azken urtean LEC-en (Europako LoL txapelketa nagusian) 45 fitxaketa egin dira guztira eta 10-20 milioi euro inguru mugitu dira. Diru honen kopuru bat jokalarik profesionalen ordezkariarentzako da.



Guretzako oso garrantzitsua da, jarduera guztiak enpresaren barruan geratzea, hau da, gure jarduerak ez dira kanpoko enpresen esku geratuko. Ez dugu nahi kanpoko enpresek gure enpresaren mugimenduetan sartzea. Beraz, nahiago dugu pertsona bat kontratatu gure enpresara bakarrik dedikatuko dena, hori beti ere, gure zerbitzua emateko garaian edo enpresan betetzeko zuloen bat geratzen bada, edo ez bagara denetara iristen. Gainera, ziur gaude enpresa pixka bat handitzen denenak, beharrezkoa ikusten dugu zerbitzuen arduradun gehiago kontratatzea; hau da, bezeroekiko zuzeneko harremana edukitzeko langile gehiago kontratatzea, bezeroak merezi duen arreta eduki dezan.

